

## 1- Entzun aurretik

### 1.1 Musuka nazazu



Musukatzeari buruz arituko zara ikasgelako mintza saioan. Hori dela eta, gai horretaz dakizuna astintzeko ariketa bat proposatzen dizugu. Testua irakurri ahala, idatzi behar dituzu:

- Lehen paragrafoan, musuek eraginkorrak izateko bete beharko lituzketen 5 baldintza
- Bigarreanean, berriz, egoki musukatzeko "p" hizkiak hasten diren 3 ezaugarri

Ikasgelan, zuen proposamenak partekatuko dituzue. Ea nor hurbiltzen den gehien testuko ezaugarrietara.





Torloju musuak, xurgatzaileak, hortzez hortzekoak, sakonak, estuak, gozoak, pasioz beterikoak, bibotedunak, otso gizon musuak. Musu mota asko dago eta musukatzeak, gauza guztiek bezala, bere sekretutxoak ditu. Dena dela, gustuko neska-mutilarekin arituz gero, eta trebezia pixka batekin, gozamena ziurtatuta dago.

Tomima Edmarkek "*Musuen liburuan*" bost baldintza jarri ditu musu batek dardarka utz gaitzan. Lehenengoa, . Bigarreana, . Hirugarrena, . Laugarrena, . Eta azkenik, . Hala ere, erasoari ekin aurretik musuei buruz zenbait kontu jakitea komeni da, ez huts egiteko, noski.



Batzuetan, musua bikotekideen arteko maitasuna azaltzeko keinua baino ez da. Askotan, ordea, musuek indar erotikoa handia izan dezakete eta sexu jolasetara eramanez gaitzakete. Helburua edozein izanik ere, gai honi buruz hainbat liburu idatzi dituen David Colemanen arabera, hiru "p" behar dira egoki musukatzeko: ,  eta . Ez ahaztu bikotekidearekin zaudenean eta pekatu egin ezazu!

<p><b>Idatzi musu batek bete beharreko bost baldintza:</b></p> <p>1 _____</p> <p>2 _____</p> <p>3 _____</p> <p>4 _____</p> <p>5 _____</p>	<p><b>Idatzi egoki musukatzeko "p"z hasten diren hiru hitz:</b></p> <p>1 _____</p> <p>2 _____</p> <p>3 _____</p>
---	--

## 1.2 Musuak

  Ariketan idatzi dituzuen hitzak eta baldintzak partekatuko dituzue. Ondoren, irakasleak esango dizue zein diren testuan ageri direnak. Oso urruti ibili al zarete?

## 1.3 Tontodromoa

  Jon eta Jone "tontodromoan" elkartzekotan gelditu dira. "Tontodromoa" zer den ba al dakizu? Komentatu ikaskidearekin eta saiatu definizio bat ematen. Zure herrian ba al dago horrelakorik? Nolakoa da? Azkenik, elkarrizketa entzun eta alderatu "tontodromoaz" jaso duzuen irudia zuen artean komentatu duzuenarekin.






# 2- Entzun bitartean

## 2.1 Jonen arrazoia

   Tontodromora joatearen ideia Jonena izan da. Zein izan da arrazoia? Aukeratu bat:

- Han ikusi zutelako elkar lehen aldiz
- Han izan zutelako lehen harreman sexuala
- Han eman nahi izan ziolako gaztetako lehen musua Joneri
- Aspaldi agindu ziolako hara eramango zuela

## 2.2 Zer gertatu da?

     Irakurri baieztapenak eta aukeratu elkarrizketan adierazi direnak. Ondoren, alderatu erantzun duzuna zure ikaskidearekin. Zer gehiago gehituko zenukete? idatzi zuen proposamena eta gainerako ikaskideekin partekatu.

- Jonek Joneri musua eman eta aitortu dio gaztetan elkarrekin ibiltzen hasi baino lehen, hara eramaten zuela musua emateko asmotan, baina ez zen inoiz ausartu.
- Jone harrিতa geratu da Jonen ateraldiarekin eta eskertu dio hain erromantiko egon izana.
- Jon teatrero hutsa iruditu zaio Joneri eta eduki duen ideari iseka egin dio. Gainera, bustitzen ari zirela leporatu dio eta haserre bueltatu da bulegora.



Joni bizitzaren gailurrera iritsita dagoela iruditzen zaio eta orain lotsarik ez du lehen barregarriak iruditzen zitzaizkion gauzak egiteko.

Jone ez da batere aldatu Jonen ustez; lehen bezain Merkel omen da orain ere.

Besterik: .....



.....

.....

.....

### 3. ENTZUN ONDOREN

#### 3.1 Musukatzaile arrakastatsua izan nahi?

  Musuak direla eta, hemen duzu unitatearen hasieran irakurri duzun testuaren jarraipena. Oraingoan, ordea, musu egokia emateko aholkuen berri ematen du. Testua irakurri ahala, saia zaitez bertan aipatzen diren aholkuak osatzen, esaldi-zatiak dagokien lekuan jarrita. Bukatutakoan, alderatu zure ikaskidearekin egindakoa.

**kontua ez da erronka botatzea garrantzitsua da, halaber, sudurretik arnasa hartzea onena ezpainak arin eta gozo elkartzea da ez lukete bere musu uholdearekin gehiegi gozatuko sentsazioak areagotu egiten dira ez zaitez gehiegi luzatu kalitatea kantitatea baino garrantzitsuagoa da ez da sekula azkar ibili behar**

**Ez azkar ibili, ez temati izan**

Adituen arabera, musukatzerakoan, [ ]. Hasteko, [ ], mingaina dantzan jarri gabe. Bestalde, begiak itxita, entzumen, ukimen eta usaimen [ ]. Garrantzitsua da, halaber, [ ], musua gehiago luzatzeko. Dena den, [ ] eta zinema munduko musurik luzeena gainditzeko ahalegintzea: hiru minutu eta bost segundo! Musu hori "You are in the Army now" filmean ikus daiteke, eta Jane Gimán aktorea, eszena errodatzerakoan, zorabiatzear egon zen, Regis Tommey-ren ahoari itsatsita. Hortaz, badaezpada [ ]. Erietxea ez baita musuaren ondorioak gozatzeko lekurik erotikoa!

Sexu edo maitasun kontuetan bezala, musuetan ere [ ]. John Barrymorek, AEBetako zinema mutuko galairik galaienak, film berean musu gehien emandako zaldunaren errekorra du. Film bakar batean ("Don Juan", 1926) 127 musu banatu zituen Mary Astor eta Estelle Taylor-en artean. Tematia gizona! Egungo emakumeek, ordea, [ ], izan ere,

adituen arabera, garai hartako musuak hitz gutxitan labur litezke: lehorrak eta ahoa itxita di-da emandakoak.

Zorionez, praktika guztiak, urteak joan urteak etorri, hobetu egiten dira, eta musukatze ere ez da salbuespena.

[http://www.gaztezulo.eus/\(jarraipena\)](http://www.gaztezulo.eus/(jarraipena))

### 3.2 Lehen musua



Gogoratzen al duzu zuk, edo zuri, emandako lehen musua? Irakurri dituzun baldintzak bete al zituen? Partekatu zure ikaskidearekin une hartan bizitako esperientzia. Nahi izanez gero, irakurri nola kontatzen duen gaztetxo batek berak bizitakoa, eta erreparatu azpimarratuta dauden zatiei zure kontaktetan ideia bezala erabiltzeko. Ondoren, partekatu zeure esperientzia ikaskidearekin. Oso desberdinak izan al ziren?



*16 urte nituela neska batez maitemindu nintzen, ez nion inori kontatu, denbora luzez niretzat gorde nuen, oso lotsatia bainintzen. Hilabete batzuk igaro ziren eta uda osoa lagun moduan gelditzen eman genuen. Baina ez nintzen ausartu nire sentimenduak adierazten.*

*Lagunei kontatu nien, eta haiek maite nuen neskari sentitzen nuena esan behar niola esaten zidaten. Baina saiakera asko egin nituen arren, ez nuen lortu uda osoan ezer esaterik.*

*Urriko asteburu batean, ordea, zinematik irten eta agurtzerakoan, unetxo bat itxaroteko eskatu nion. Oso urduri nengoen... izerditan blai! Baina berarengana hurbildu, eskutik heldu eta nirekin ateratzeko eskatzera ausartu nintzen. Eta Berak... baietz esan zidan! Nire poz hartan ez nintzen konturatu nola gertatu zen, baina bat-batean, ezpainetan musu bat ematen zidala sumatu nuen. Zirrargarria! Ordura arte izan nuen sentsaziorik onena izan zen musu hura. Jokoz kanpo utzi ninduen eta bigarren aldiz musukatu behar izan ninduen errealitatera bueltatzeko. Orduan bai, gozo-gozo musukatu ginen, begiak itxita, eta besarkada bero eta luze batean bat eginda.*

Gorka